



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Kultur Etxea (Basauri)

Irakasle Artista (zeraimika) lanpostu bati dagokion hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikokoak.

Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakariak 401/2025 zenbakiko Ebazpena eman du 2025eko maiatzaren 20an, eta honako hau xedatzen du bere Ebazpen-zatian:

Lehenengoa: Irakasle Artista (zeraimika) lanpostua txanda irekiaren bidez hautatzeko hautapoben deialdia onartzea.

Bigarrena: Irakasle Artista(zeraimika) lanpostu bat (1) oposizio-lehiaketaren bidez txanda irekiz betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak onartzea (7.4 lanpostuaren kodea).

Hirugarrena: Agindua ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, bai eta deialdiaren laburpen bat ere Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Basaurin, 2025eko ekainaren 9an.—Basauriko Udal Kultur Etxearen Lehendakaria, Berta Montes Beltrán

**BASAURIKO UDAL KULTUR ETXEA ERAKUNDE AUTONOMOAN
IRAKASLE ARTISTA (ZERAMIKA) BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deitutako lanpostuak**

Oinarri hauen xedea da Basauriko Udal Kultur Etxea Erakunde Autonomoari atxikitako zeramikagintza-tailerreko Irakasle Artista lanpostu bat (1) betetzeko deialdia arautzea, txanda irekiko oposizio-lehiaketaren bidez. Lanpostu hori lan-kontratuko langile finkoentzat gordeta dago, eta 2020ko lan-eskaintza publikoari dagokio.

Izendatu ez diren izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioaren arabera. Lan-poltsa hori antzeko lanak edo lanpostu berekoak aldi baterako egiteko erabiliko da, hamalagarren oinarrian jasotakoaren arabera.

Bigarrena. — Lanpostuaren ezaugarriak

- Araubide juridikoa: Lan-kontratuko langile finkoak.
- Lanpostu kopurua: 1.
- C1 sailkapen-taldea.
- Lanpostuaren izena: Irakasle Artista (zeramika).
- Lanpostuaren kodea: 7.4.
- Lanaldia: Osoa.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3. hizkuntza-eskakizuna. Data 2014ko abenduaren 31.

Hirugarrena. — Eginkizunak

1. Ibaiganeko Kultur Etxean egiten diren ikastaroak kontrolatzea eta ematea. Gai-zerrendak eguneratuz edo aldatuz, ikasleen matrikulak kontrolatuz, eguneroko bertaratzeak kontrolatuz, alten eta bajen egoera-orriak eginez, gainerako irakasleekin erakusketen datak edo egokitzen jotzen den beste edozein jarduera edo ekitaldi koordinatuz.

2. Esleitutako ikastaroak ematea, klasetarako materiala prestatzea, azalpen teoriakoak ematea, azaldutako kontzeptuen praktikak egitea, erakustaldiak egitea, aholkuak ematea eta lanak kontrolatzea.

3. Aurrekontuak egitea gai-zerrendan eta ikasle-kopuruan oinarrituta, hornitzaileekin harremanetan jarrita eta aurrekontuak eskatuta.

4. Materiala erostea.

5. Ikasturte amaierako erakusketak.

6. Bere nagusiek bere eskumenen barruan agindu diezazkioketen beste zeregin batzuk.

Laugarrena. — Betekizunak

Lehendakaritzaren ebazpen bidez onartutako eta 2025eko martxoaren 20ko 55 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri orokorren 2. atalean ezarritakoez gain, izangaiek Batxiler-titulua edo LHko teknikari-titulua edo baliokidea eduki beharko dute. Baliokidetasuna izangaiak aurkeztu beharko du, Administrazio eskudunak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen kredentziala dutela.

C1 Azpitalderako langileak hautatzeko tasaren zenbatekoa 15 euro da. Langabezia daudenek, dagokion enplegu-eskariaren txartela aurkeztuta egiaztatuko dutenek, ez dute tasa ordaindu beharko.

**Bosgarrena. — Eskabideak aurkeztea**5.1. *Epea*

Hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzeko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi honen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.2. *Eskaeraren betekizunak*

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskabidea, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidea bezela, helbide honetan:

— <https://www.sedeelectronica.basauri.eus>

Baliabide propioak ez badago, Udalak aurrez aurreko arretarako gune bat jarriko du, eta Udalaren Herritarren Arretarako Zerbitzuan izapideak egiteko behar diren baliabide informatikoak jarriko ditu izangaiaren eskura.

Izangaiek eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte.

Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, eskabideei dagozkien ataletan, izangaiek honako hauek adierazi beharko dituzte:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-faseko ariketak egin nahi dituzten hizkuntza ofiziala, euskara edo gaztelania.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazio akademiko ofiziala.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, halakorik badute. Bestela, deialdi honetako 10.1.3 oinarrian, hirugarren ariketari dagokion atalean, ezarritako moduan eta epean egiaztatuko da hizkuntza-eskakizuna.

Seigarrena. — Dokumentuak aurkeztea6.1. *Parte hartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak*

Laugarren oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren emango da, hamaikagarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Oinarri hauetan ezarritako epearen barruan eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek edo dokumentazio hori aztertuta laugarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, Kultur Etxea erakunde autonomoko lan-kontratuko langile finko edo praktikaldiko langile izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean faltsutasuna izateagatik izan ditzaketen erantzukizunei kalterik egin gabe.

Ez da beharrezkoa izango Kultur Etxea erakunde autonomoko langileen espedienteetan dauden dokumentuak aurkeztea; kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

6.2. *Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea*

Espainiako nazionalitatea ez dutenek dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute, euskarara edo gaztelaniara egindako itzulpen ofizialarekin batera. Itzulpena dagokion konsultatuak edo bulego diplomatikoak baliozkotutako zinpeko itzultzaileak egin beharko du.

Deialdian parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko, jatorrizkoak edo kopia konpultsatutakoak aurkeztu beharko dira, 6.1 oinarriaren arabera beharrezkoa ez denean izan ezik.

Zazpigarrena. — Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartuko da Erakunde Autonomoko Lehendakariaren ebazpen baten bidez, eta bertan adieraziko da zein diren baztertzeko arrazoiak eta zein kasutan zuzendu behar diren



eskabideetako hutsak edo omisioak. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka akatsak edo omisioak zuzentzeko edo erreklamazioak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ondoren, Lehendakaritzak beste ebazpen bat emango du onartutakoen edo baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko, eta ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamazio berriak aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

Hautaketa-prozesurako hautagai bat onartzeak ez dio Administrazioari eragotziko izangaiak baztertea, horiek onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen bada. Kasu horretan, Epaimahaiak, interesdunari entzun ondoren, erakunde autonomoko lehendakariari igorriko dio, bidezkoa bada ebazpen-proposamena eta prozesutik kanpo utziko du pertsona hori.

Onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onartzen dituen lehendakariaren ebazpenaren bidez prozesutik kanpo geratu diren izangaiek jarritako errekursoak probak egiteko egunean ebatzi gabe badaude, ukitutako izangaiek kautelaz egin ahal izango dituzte proba horiek, baina ez dute baliorik izango aipatutako errekursoak ezetsiz gero.

Zortzigarrena.— Epaimahai kalifikatzailea

8.1. Lehendakaritzaren ebazpen bidez zehaztuko da hautaketa-epaimahaiko kideen izendapena, bai eta lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua ere.

8.2. Epaimahaiaren osaera bat etorriko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoarekin. Kide hauek izango ditu: presidentea, idazkari bat eta lau bokal, deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazio akademiko bera edo handiagoa dutenak. Epaimahaiko kideek hitza eta botoa izango dute, idazkaritzan diharduenak izan ezik, hitza izango baitu, baina botorik ez. Batzordearen osaera kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioetara egokitu beharko da, eta, era berean, emakumearen eta gizonaren arteko parekotasunera joko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epaimahaiko kideen artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendatutako bokal bat egongo da.

8.3. Epaimahaiak erabaki ahal izango du hautaketa-prozesuko proba guztietan edo batzuetan aholkularitza emango duten eta espezialitate teknikoetan arituko diren pertsonak bere lanetan sartzera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio-inguruabarren bat gertatzen bada, eta erakunde autonomoko lehendakariari jakinaraziko diote. Lege horren 24. artikuluan arabera, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada.

8.5. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, Epaimahaiaren jardun-prozedura Lehendakaritzaren ebazpen bidez onartutako eta 2025eko martxoaren 20ko 55. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri orokorretan xedatutakora egokituko da, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 19. artikulura bitartean xedatutakora ere.

**Bederatzigarrena. — Deialdiak eta jakinarazpenak**

Erakunde autonomoko Lehendakaritzak eta Epaimahaiak deialdiari, emaitzei, kalifikazioei eta bestelako komunikazio eta ebazpenei buruz hartutako erabakiak Basauriko Udalaren web-orrian argitaratuko dira. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen den beste edozein publizitate mota ere egin ahal izango da.

Hamargarrena. — Hautapen prozesua**10.1. Oposizio-fasea. Gehienezko puntuazioa. 60 puntu**

Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira, eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

10.1.1. Lehenengo ariketa teorikoa. (Nahitaezkoa eta baztertzaila). Gehienezko puntuazioa: 20 puntu

Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko epean, idatziz erantzun beharko zaio lau erantzun alternatiboko galdera-galdetegi bati, oinarri hauei dagokien gai-zerrendako zati komunean dauden edukiei buruz (I. eranskina).

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena izango da ($P = A - E/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akastzat hartuko.

Ariketaren puntuazioa 0 eta 20 puntu artekoa izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. 10 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

10.1.2. Bigarren ariketa praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienezko puntuazioa: 40 puntu

Kultur Etxeko zeramikagintza-tailerreko antolamenduari eta ezaugarriei buruzko proposamen-memoria bat egingo da, deialdi honetako bigarren oinarrian definitutako lanpostua zehazten duten funtzioei begira, eta honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Memoriaren egitura: 5 puntu.
- Zeramikagintza-tailerra antolatzeke proposamena. Xehetasun-maila: 15 puntu.
- Jarduera osagarrien proposamenak eta horien bideragarritasun teknikoa: 10 puntu.
- Beste udal-zerbitzu batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak: 10 puntu.

Memoriak gehienez 15 orrialde izango ditu. Kultur Etxea Erakunde Autonomiari buruzko informazioa: <https://socialantzokia.eus/> eta <https://kultur.basauri.eus/es>

Epaimahaiak erabaki ahal izango du hura jendaurreko bilkuran irakurtzea, eta, ariketa zenbateraino den egokia zehazteko, beharrezkotzat jotzen dituen galdera guztiak egin ahal izango ditu gehienez ere hamabost minutuz. Hala badagokio, Epaimahaiak erabakiko du irakurketak non, noiz, zer ordutan eta nola egingo diren.

Ariketa 0,00 eta 40,00 puntu bitartean kalifikatuko da, eta gutxienez 24,00 puntu edo gehiago lortzen ez dituzten izangaiak kanporatuta geratuko dira.

Oposizio-faseko kalifikazioa ariketaren bi zatietan (teorikoa eta praktikoa) lortutako puntuazioaren batura izango da.

10.1.3. Hirugarren ariketa. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeke proba. (Nahitaezkoa eta baztertzaila); beraz, hori egiaztatzea sartzeko baldintza da. Ariketa gai edo ez-gai gisa kalifikatuko da, eta gainditu ezean, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da

Euskara-proba egitetik salbuetsita egongo dira proba hasi aurretik Epaimahaiaren aurrean honako egoera hauetakoren bat egiaztatzen dutenak:

1. Hizkuntza-eskakizuna izatea, lortu nahi diren lanpostuen arabera, edo titulu edo ziurtagiri baliokide bat izatea, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera (Euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeke Dekretua).



2. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren bidez (euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa), proba egitetik salbuetsita egotea.

Hizkuntza-eskakizuna honela egiaztatuko da:

- a) IVAPEk, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituzten pertsonak, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea betetzean, ziurtagiri horiek egiaztatzeko baimena eman ahal izango diote Basauriko Udal Kultur Etxea erakunde autonomoari. Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituzten pertsonak, edo erakunde autonomoari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenek, edo geroago lortzen dituztenek, alegatutako tituluaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute euskara-probak egin aurretik.
- b) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizunaren azterketa egitetik salbuetsita dauden pertsonak ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egin dituztelako, eskabidean alegatu beharko dute eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak amaitu dituzten ikastetxe edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

10.2. *Lehiaketa-fasea. Lehiaketa-fasean gehienez 40 puntu lor daitezke, eta baremo honen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du puntuazio hori*

- a) Esperientzia. Gehienez 30 puntu

Administrazio publikoetan C taldeko C-1 azpitaldeko zeramika irakaslearen lanpostu/plazan egindako zerbitzuengatik, gehienez 30 puntu, 5,00 (bost) puntu zerbitzu-urte bakoitzeko, edo sei hilabeteko edo hortik gorako frakzio bakoitzeko. Sei hilabete baino gutxiagoko zatikiak ez dira baloratuko.

Administrazio publikotzat hartuko da indarrean dagoen araudian jasotakoa, bereziki Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 2. artikulua. Ez dira baloratuko zerbitzu zibilak edo merkataritzakoak alokatzeko kontratuak, bekak eta praktika profesionalak, ezta esperientzia profesionalarekin lotutako merezimenduak ere, baldin eta ez bada berriaz adierazten betetzen den lanpostuaren izena edo kategoria profesionala eta kontratazio- edo izendapen-aldien hasiera- eta amaiera-data.

Esperientzia hori Epaimahaiak egiaztatu eta baloratuko du, zerbitzuak eman diren Administrazioak emandako zerbitzuen ziurtagiri ofizialak aurkeztuz soilik.

Nolanahi ere, lanaldi partzialeko edo lanaldi murriztuko zerbitzuak eman diren aldiak lanaldi osoko lan gisa zenbatuko dira. Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1c) artikulua betez, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira kontuan: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoean egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko erraztasunak ematea, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere.

- b) Titulazioak eta hizkuntzak. 10 puntu gehienez

- b.1. Titulazio akademiko ofizialengatik, baldin eta titulazio horiek izatea deialdiko betekizuna ez bada, eta administrazio eskudunak balio akademiko ofiziala duten tituluak ematea onartuta duen ikastetxe publiko edo pribaturen batek eman baditu, honako xehetasun hauen arabera:

— Unibertsitateko Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa edo Arkitektura Teknikoko titulazio akademiko bakoitzeko, edo Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 2. mailako titulu bakoitzeko, sarbidekoa ez bada: 2 puntu.



- Lizenziatura-titulu bakoitzeko, eta deitzen den lanpostuaren ezagutza funtzionalari buruzko unibertsitate-master bakoitzeko: 3 puntu. Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan (RUCT) sartutako masterrak baino ez dira baloratuko.
- b.2. Hizkuntzak. Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuk jakitea baloratuko da, baldin eta hizkuntza horiek izatea deialdian sartzeko baldintza ez bada, honako xehetasun hauen arabera:
 - Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko. Gehienez 3 puntu.

Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango. Alegatzen diren merezimenduak egiaztatzeko agiriak eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira.

Ezin izango dira alegatu eskabidean alegatutakoez bestelako merezimenduak eta adierazitako aurkezpen-epeen barruan justifikatutakoak, ezta eskabidean alegatutako merezimenduak ere, baldin eta horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko epea amaitu ondoren justifikatzen badira.

Epaimahaiak agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango die izangaiei, baldin eta alegatutako merezimenduen alderdiren bat argi geratzen ez bada.

Hamaikagarrena. – *Prozesuaren emaitza eta dokumentuen aurkezpena*

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du (betiere gainditu badira). Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan (ariketa praktikoa) puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko da.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak udalaren helbide elektronikoan argitaratuko ditu gainditutako behin-behineko kalifikazioak, eta kalifikazio horiek lortutako guztizko puntuazio handienetik txikienera ordenatuko ditu, eta berariaz adieraziko du zein diren hautatutako pertsonak, eta horien kopurua ezin izango da izan deitutako lanpostuetatik gorakoa.

Gaindituen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Epaimahaiak, erreklamazioak ebatzi ondoren, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Ondoren, epaimahaiak lan-kontratuko langile finko (probaldiarekin) izendatzeko proposatutako izangaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea irekiko du pertsona horiek laugarren oinarrian jasotako parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiazta dezaten, agiri konpultsatuen bidez. Halaber, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Atzerriko izangaiek Udal Kultur Etxearen jakinarazpen bat jasoko dute. Bertan, beren egoera kontuan hartuta nahitaez aurkeztu behar duten dokumentazio zehatza zehaztuko da.
- c) Zinpeko aitortpena, honako hauek adieraziz: funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela, diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioen zerbitzuetatik kenduta ez dagoela, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean, Herri Administrazioen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzkoan, aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez dagoela.
- d) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute beren estatuan funtzio publikoan sartzeari eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.
- e) Oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez dutela egiaztatu beharko dute hautatutako pertsonak, eta erakunde autonomoaren Lan Osasuneko zerbitzuetan egingo diren proba eta azterketa medikoak egin beharko dituzte.



Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostuetara aurkezten diren izangaiek, gainera, eskatzen dituzten deialdiko lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria lortu beharko dute, Erakunde Autonomoko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emana. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzen duten probak eta mediku-azterketak egiteko deialdia modu personalizatuan egingo da.

Aipatutako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaiek beren agiriak aurkezten ez badituzte edo eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez badute, ezin izango dira izendatu eta dagozkien jarduketa guztiak balio gabetuta geratuko dira, eskabidean faltsutasuna egoteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe. Kasu horretan, ordezkapenak hautaketa-prozesuaren emaitzaren puntuazio-hurrenkerari jarraituz egingo dira, aipatutako agiriak aurkeztu ondoren.

Hamabigarrena. — Probaldia

Hiru hilabeteko probaldia egingo da, oinarri orokorretako hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Hamahirugarrena. — Izendapena eta kontratua

Basauriko Kultur Etxeko lan-kontratuko langile finkoen kontratazioa oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera egingo da.

Hamalauugarrena. — Aldi baterako lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honen emaitzarekin, lan-poltsa egingo da, 3 urteko iraupenarekin. Oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin osatuko da, eta Kultur Etxean aldi baterako langile-beharrak estaltzeko erabiliko da. Kultur Etxeko lan-poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, eta, halakorik ezean, Basauriko Udalekoaren arabera.

Hamabosgarrena. — Datu pertsonalen babesa

Hautaketa-prozesuan bildutako edo sortutako datu pertsonalak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko eta aldi baterako kontrataziorako sortuko den lan-poltsa kudeatzeko baino ez da erabiliko.

Deitutako lanpostuak lortu nahi dituzten pertsonak berriaz onartuko dute emandako datuen tratamendua, baldin eta segurtasun-neurriak behar badituzte eta hautaketa-prozedurarako beharrezkoak badira.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei laga dakizkieke, hala eskatzen badute. Lagapen hori titular diren datu pertsonalei dagokienez egin nahi duten hautagaiek berriaz onartu beharko dute.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen informazio-eskubideak bermatze aldera, Internet bidez kontsultatu ahal izango dira prozesuko zerrendak, lehen aipatutako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabidean agertzen diren helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliozkotzat joko dira. Kontsignazioan egon daitezkeen akatsak, eta horietan gertatzen den edozein aldaketa auzitegiari jakinaraztea, eskaera egiten duenaren erantzukizuna da soil-soilik.

Jakinarazpenak egin ahal izateko, eskabidean adierazitakoa hartuko da helbidetzat, salbu eta ondoren berriaz eta modu frogagarrian beste helbideren bat jakinarazten bazaio deialdia egin duen agintaritzari.

Hamaseigarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri haue-tan aurreikusten ez den guztian hautaketa-prozesua behar bezala egiteko beharrezko erabakiak hartzeko.



Deialdi hau, bere oinarriak eta horietatik eta Auzitegiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epe eta moduan.

**I. ERANSKINA**

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. 11. artikulutik 38. artikulura.
2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. 1978ko Espainiako Konstituzioaren VIII. titulua.
3. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Autonomia Erkidegoaren eskumenak.
4. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua. II. titulua. Euskal Herriaren botereak. III. titulua. Ogasuna eta Ondarea.
5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozedurako interesdunak. Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua: Administrazio-prozeduran interesdun direnen identifikazioa eta sinadura.
6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio publikoen jardura: jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak.
7. gaia: Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren estatutuak. I. titulua. Atariko xedapenak. II. Titulua Gobernu eta Administrazio Organoak.
8. gaia: Kultur Etxea erakunde autonomoari atxikitako kultur etheen eta zentrozen funtzionamendua arautzen duen araudia. Erabiltzaileen II. titulua. III. titulua. Instalazioetara sartzeko araudia. V. titulua. Jarduerak, ikastaroak, tailerrak eta bestelako prestakuntza-jarduerak programatzea.
9. gaia: Udalerria. Kontzeptua eta elementuak. Udal-antolaketa. Udallerriaren eskumenak.
10. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena. Printzipio orokorrak. Euskal botere eta administrazio publikoen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. (II. titulua).